



## Joven, ¿emprendes o empierdes?

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **ekintzailetzaren “boom-a”**–ren inguruan hausnartu du gazte eta politikariei **honen abantaila eta arriskuak** helarazteko asmoz
- Gazteen plataformak **ekintzailetza gazteen enplegua gehiago prekarizatzeko “aitzakia” bihurtu ez dadin** hainbat jarraibide proposatu ditu

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 13an. Gazteen langabeziaren igoera azkarraren aurrean geroz eta gehiago zabaltzen ari diren gazte-ekintzailetzaren aldeko mezu eta politika publikoak ikusita, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ohar baten bidez **“Joven, ¿Emprendes o empierdes? #EkinalaPlof”** ikerketa aurkeztu du. Bertan, gazteek ekintzaile izaterakoan topatzen dituzten arazo eta oztopo nagusien inguruan hausnartu ditu.

Urte oso batean zehar garatua izan da proiektua eta honen ondorioak txosten batean eta laburpen bideo batean bildu dira. Joan den urtarrilean argitaratutako “SOSgazte: gazteen lan emigrazioa” proiektua jarraituz, hausnarketa honek EGK-k gazteen langabeziaren igoera larriaren aurrean martxan jartzen diren gazte enplegurako politika publikoen inguruan egiten duen hausnarketa osatzen laguntzen du.

Kontseiluko buru den Itsaso Anduezak argitu nahi izan du txosten honen bidez **ez dela “ekintzailetzaren aurka joan nahi, aldiz, normalean plazaratzen ez diren alderdi eta ikuspuntuak batu nahi izan” direla**. Egindako lanak helburu bikoitza duela gehitu du: “alde batetik, **gazteei zuzenduta** dago, ekintzailea izatea erabakitzen badute ahal den informazio zabalena izan dezaten, hauen arriskuak baloratzeko”. Bestalde, **“administrazio eta politikariei zuzenduta dago**, politika publikoak garatzerakoan gazteek ekintzaile direnean topatzen dituzten egoera zehatzak kontutan har ditzaten”.

Kontseiluko enplegu eta etxebizitza arduraduna den Asier Jaiok azaldu duenez, #EkinalaPlof ikerketak indar berezia egiten du hurrengoan: “ekintzailetza kontzeptuak oso esanahi ezberdinak izan ditzake erabiltzen duen pertsona edo instituzioaren arabera. **Ezkutatzen dituen konnotazioen artean gazteen hainbat prekaritate formula egon daitezke**”.

Izan ere, proiektuan zehar zuzenean elkarrizketatutako 25 gazte baino gehiagok kontatu dutenaren arabera, **ekintzailetzak batzuetan gazte ekintzailearen autoesplotazio bat ezkututzen du**, bakoitzak bere lan baldintzak ezartzen dituelako eta “lan orduak inoiz ez”



direlako zortzi ordukoak, “beti dira luzeagoak”. Azken finean, “beste batek esplotatu ezean, beste horrek lortzen du zuk zeure burua autoesplotatzea”.

Horretaz gain, gazteek kontatutakoaren arabera, **ekintzailatza autoenplegu bezala ulertzerakoan, ekintzailatzak autonomo faltsuen kontratazioa estal dezake**, izan ere, batzuetan “enpresek aitzakia bezala erabiltzen dute gazteak kaleratu eta haien zerbitzuak berriz eskatzeko, oraingoan autonomo bezala”.

Bukatzeko, azpimarratu dute **ekintzailatza ez dela beti emantzipaziorako bide zuzena**; izan ere, Gazteriaren Behatokiaren datuen arabera, negozio bat martxan duten gazteen artean “lautik hiruk negozioa dute oinarrizko diru sarrera eta hauetatik, ia hirutik bat ez da hilabete bukaerara heltzen”. Honi gehitu behar zaio gazte askok ekintzailatza proiektua beste lan batzuk egiten dituzten bitartean garatzen dutela. Elkarrizketatutako gazteek esan bezala, “hau oso orokortua den zerbait da, baina egoerak bultzatua”, “nire ustez hau biziraupena da”.

### OZTOPOAK ETA PROPOSAMENAK

Ikerketaren lehen parteak ekintzailatza proiektuak garatzeko bidean gazteek topatzen dituzten oztopo espezifikoengandik inguruan hausnartzen du. Eta hauek oso anitzak dira: adibidez, gazteek pairatzen duten lan merkatuaren prekarietatearen ondorioz, **kalitatezko lan esperientziarik izan ez dutenez, ekintzaile izateko beharrezkoa duten lan merkatuen ezagutza sakonaren falta** dute. Bestalde, **errekurtso ekonomikoengandik falta** badute ere, bai proiektua martxan jartzeko, bai egunero bizitzeko behar diren gastuak ordaintzeko ere. Eta, nola ez, **maileguak eskatzeko familiak sinatutako bermeek hainbat arrisku sortzen dituzte**, besteak beste.

Hala ere, elkarrizketatutako gazteek identifikatu dituzten oztopo nagusiak aurrerago zehazten dira, haiek ekiditeko proposamenak eginez:

- 1- Zabaltzen ari den **ekintzailatzaren irudi idilikoak** eragin dezake “non sartzen garen ez jakitea”. Gazte batzuen aburuz, ekintzailatza “marketing estrategia bat da, gazteen langabezia altua denez, ba gazteak ekintzaile izan daitezela diote”. Horregatik, eta ekintzailatza gazteen prekarietatea areagotzeko aitzakia bat izan ez dadin, hurrengo eskatzen da txostenean: **“gazteen ekintzailatzara bideratutako neurriak ekintzailatzaren kalitatean oinarritzea, ez soilik erregistroetan emandako alden zenbakian”** eta **“lan ikuskaritzak egitea autonomo faltsuen formula gazteen enplegurako formula bezala ez normalizatzeko”**.
- 2- **Gazte garelako ez gaituzte aintzat hartzen**, izan ere, “adin horretan ez gaituzte serio hartzen. Ez dira fidatzen eta zuk konfidantza behar duzu”. Horregatik, txostenak indar handia egiten du **gazteriaren irudi positiboa bultzatzearen beharrean**, gazteriaren inguruan gizarteak duen irudia errealitatearekin bat etor dadin eta ez “bihurri, arduragabe eta potentzialki gaizkileen” aurriritziekin.
- 3- **Administrazioen arteko koordinazio ezak** “enpresa bat martxan jartzea benetako buruhauste bat izatea” eragiten du, eta horregatik **tramiteak erraztea** eskatzen da.
- 4- Ekiterakoan **inguruarekiko menpekotasuna dago**, izan ere, “inguru familiarraren esku dago zuk ekin ahal izatea ala ez” eta horrek gazteen arteko ezberdintasunak sakontzean eragin dezake. Bereziki, oso errealak diren arrisku gehiegi dago: “beti atzetik duzun “run-



run” hori, gaizki badoa eta dena galtzen badut?”. Horrela, **ekintzaitzak berezko dituen arriskuak murrizteko pausoak eman daitezzen eskatzen du eta, bereziki, gazteek topatzen dituzten oztopo administratiboak ezabatu daitezzen**, hala nola, laguntzen eskaeretan, lehiaketa publikoetan, eta abar.

- 5- Azkenik, **ekintzaitza eredu ezberdinen arteko hierarkizazioa dagoela** iritzi da, batzuetan “mundu teknologikoarekin zerikusirik ez daukan norbait heltzen denean, kanpoan geratzen” dela deritzote. Honen harira, **hiritartasun aktiboa bultzatu beharra dago, eta ez soilik ekintzaitza ekonomikoa**.

### ADORE MEZU BAT


Bukatzeko, Itsaso Andueza presidenteak “ekintzaile izatea erabakitzen duten gazteek egin behar duten esfortzu handia” azpimarratu du, eta horregatik diote **“ekintzaile izan eta porrot egiten ez duenak, asko duela ospatzeko”**.

Aldi berean, txostenak gaztetatik ekintzaile izateak dituen alderdi onak azpimarratzen ditu: alde batetik, gazteok dugun **“denbora, energia eta prestutasuna”**. Bestetik, **“egiten ikasten”** dela, gazte ekintzaile baten hitzetan:” hoberena, praktika batzuk eskatu behar ez ditudala da (...) zuk zeure buruari egiten dizkiozu praktikak, eta gainera, dena ikusten duzu, ez soilik erakutsi nahi dizutena, eta ez dituzu kafeak zerbitzatu behar...”. Eta azkenik, proiektu bat garatzeak **dakarren konfidantza eta asebetetzea azpimarratzen da, “hori egiteko gai zarela jabetzen zara”**, “zure proiektua da, egokia dela pentsatzen duzun moduan bideratzen duzu. Horrek konfidantza handia ematen dizu”.

Azkenik, Anduezak **eskerrak eman nahi izan dizkio ikerketan parte hartu izan duten pertsona guztiei eta adore mezu bat bidali die**. Adierazi duenez, txostena formatu fisikoan 160 talde eta kargu politiko, administrazio eta gazte entitateei bidali zaie, baita emailaz 1000 helbide elektronikoetara ere.

Ikerketa EGKren webgunean dago ikusgai [www.egk.org](http://www.egk.org) eta bideoa Youtubeko Gazteriaren Kontseilua kanalean dago ikusgai

<https://www.youtube.com/watch?v=6ld0jNWszoc&feature=youtu.be>



info+ eta elkarrizketak: 688 67 59 32 / [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org)  
Iñaki Goikoetxea Arrufat – EGK-ko komunikazioa